

BURLATA BLUES II. ARGAZKI LEHIAKETA

**Desenfoque Argazki Elkarteak eta Burlada Blues Bar-ek
antolatua**

OINARRIAK

1. GAIA ETA PARTE-HARTZAILEAK

Aurkezten diren argazkietan 2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 10era Burlatan egindako Blues Kontzertuak soilik islatu beharko dira. Lehiaketan parte hartzeak argazkiek baldintza hori betetzen dutela adierazten du inplizituki.

Edozein pertsona aurkeztu ahal izango da lehiaketara, epaimahaikideak eta lehen mailako senideak izan ezik.

2. ARGAZKIEN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Gehienez 3 argazki aurkeztu ahal izango dira paperean, zuri-beltzean edo koloretan. Argazkiaren tamaina librea izango da, eta argazki bakoitza 40 x 50 zm-ko kartoi mehe beltz batean muntatu behar da.

Argazkia editatzea onartua dago, eta errebelatze digitalaren berezko doikuntzak ere posible izanen dira (zurien balantzea, esposizioa, kolore mailak, kontrastea, saturazioa eta fokatzea...). Argazkietan ezin da funtsezko aldaketa digitalik egin: argazki originalari ezin zaizkio elementuak ezabatu edo elementu berriak gehitu (debekatuta dago sormenezko adimen artifizialeko tekniken bidezko fotomuntaketa eta manipulazioa).

Ez daude baimenduta Adimen Artifizialaren bidez sortutako irudiak, ezta eduki berriak sortzeko IA erabiltzea ere. Antolakuntzak informazio gehiago bildu ahal izango du irudiaren ezaugarriak buruz, baita jatorrizko artxiboari buruz ere (RAW)

Aurkeztutako argazkiak originalak eta argitaratu gabeak izanen dira, nahitaez, eta lehiaketa batean aurretik saririk jaso ez izanak.

3. AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA

Lanak Burlatako Desenfoque Argazki Elkartearen lokalean aurkeztuko dira, San Juan plaza 1 – behean, 12etatik 14etara, 2026ko abuztuaren 24tik 28ra bitartean.

4. AURKEZTEKO MODUA

Argazkiak atzealdean titulatura eta gutunazal itxi batekin aurkeztuko dira. Gutunazal horretan parte-hartzailearen datu pertsonalak sartuko dira: izena, abizenak, helbidea, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefonoa. Gutunazal txiki horren kanpoaldean, argazkiaren izenburua idatziko da.

Era berean, formatu digitalean eta argazkiaren izenburuarekin bidaliko dira, iraileko lehen astean, helbide elektroniko honetara asociacion@desenfoque.net, postaren gaian soilik jasota: II. Burlada Blues Argazki Lehiaketa.

5. EPAIMAHAIA

Epaimahaia Burlatako Desenfoque Argazki Elkarteak izendatutako hiru pertsona osatuko dute.

Lanen kalitate teknikoa, originaltasuna eta sormena baloratuko dira, baita bluesaren generoa, BBB elkarte edo kontzertuen espazio fisikoa identifikatzen duten irudiak sartzea ere. Epaimahaiari dagokio oinarri hauetan aurreikusten ez den edozein gorabehera ebaztea eta erakusketa osatuko duten lanen hautaketa (partaide bakoitzeko gutxienez bat).

6. SARIAK

- Lehen saria: 200 €
- Bigarren saria: 150 €
- Hirugarren saria: 100 €

Era berean, saritutako argazkiak Burlata Blues Bar elkarteak argitaratutako 2027ko egutegian sartuko dira. Sariak eman gabe utzi ahal izango dira, epaimahaiak hala erabakiz gero.

Pertsona berak ezin izango du sari bat baino gehiago jaso. Saritutako lanen egileei telefonoz jakinaraziko zaie epaia.

7. ARGAZKIEN ERAKUSKETA

Saritutako lanak eta aurkeztutako argazkien aukeraketa bat Burlatan erakutsiko dira irailean. Erakusgai egongo den obra kopurua aretoaren edukierak mugatuko du.

Saritu gabeko argazkiak Desenfoque Argazki Elkartearen lokalean jaso ahal izango dira, aldez aurretik hitzordua eskatuta, behin erakusketa amaituta (ez dira postaz bidaliko), hilabete batez, epe hori igarota, obrak suntsitu egingo dira.

8. ERABILERAREN ESKUBIDEAK ETA JABETZA INTELEKTUALA

Lehiaketa honetan parte-hartzeak ez du esan nahi aurkeztutako lanen jabetza intelektualaren eskubideak eskusiboki lagatzen direnik. Egileek uneoro gordeko dute beren argazkien gaineko egile-eskubideen titulartasuna. Hala ere, lan bat lehiaketara aurkezteak berarekin dakar deialdia egin duten erakundeei (Burlada Blues Bar elkarte, Desenfoque Argazki Elkarte eta Burlatako Udala) saritutako lanak erabiltzeko lizentzia ematea. Horren helburu bakarra da lan horiek erreproduzitu, banatu edo publikoki komunikatu ahal izatea, lehiaketarekin, haien xedeekin edo etorkizuneko edizioekin zerikusia duten zabalkunde-, erakusketa- edo sustapen-ekintzetan, bai eta bluesa sustatzeko ekintzetan ere, betiere egilearen izena aipatuta eta -dagokion saria kenduta- ordaindu gabe.

Parte-hartzaileek beren gain hartzen dute hirugarrenen eskubiderik ez egotearen erantzukizuna, bai eta irudi-eskubideengatiko erreklamazio orororena ere.

9. OINARRIAK ONARTZEA ETA INTERPRETATZEA

Lehiaketan parte-hartzeak berarekin dakar oinarriak eta epaimahaiak hartutako erabakiak onartzea.

Oinarri hauetan adierazitako baldintzak betetzen ez dituzten argazkiak lehiaketatik kanpo geratuko dira

Burlatan, 2026ko martxoaren 1ean